



Izena: ONE WAY LIVER GENOMICS, S.L.

Helbidea: PARQUE TECNOLÓGICO DE BIZKAIA, Edif. 801, 2ª plta.

Herria:
DERIO

Telefonoa:
944 318 540

E-posta:
info@owlgenomics.com

Web orrialdea:
www.owlgenomics.com

Produktuaren deskribapena. Zerbitzua.

OWL Genomics enpresak 85 geneko Hepatotxip bat aurkeztu du oraintsu, eta horren baterako adierazpenak Alkoholikoa ez den Esteatohepatitis (NASH) deritzonaren diagnostiko goiztiarra ahalbidetzen du. Biotxip horri esker, klinikoek tresna berria dute gaixotasunaren presentzia jakiteko (ezkutua edo azaleratua), baita gaixoengan duen bilakaera jakiteko ere.

OWL Genomics, halaber, METABOLOMIKAKo plataformaren abioa prestatzen ari da, jariakin biologikoetan (odola eta gernua) diagnostikoaren markagailu metabolikoak bilatzeko.

Merkatuaren deskribapena.

OWL Genomics oraindik okupatu barik egon den merkatuko nitxo batean oinarritzen da: patologia hepatoaren detekzio goiztiarra.

Gaur egun, ez dago gaixo hepatoaren diagnostiko goiztiarra egiteko sistemarik. Diagnostiko goiztiarrak gaixotasun hepatoaren sorrera ekidin dezake, edo bestela, diagnostikaturiko gaixoen bizi-kalitatea hobetuko du, baita hori edukitzeko arriskua duten pertsonen bizi-kalitatea ere, osasun sistemetako kostuak murriztuz.

Hala eta guztiz ere, OWL Genomics bioteknologia garbiko konpainia da. Know-how batean lan egiten du, baina ez produktuak merkaturatzeko, horien garapenak enpresa biofarmazeutikoei saltzeko baizik.

Oharrak.

OWL Genomics enpresak azken belaunaldiko ekipamendua dauka gaur egun, eta hori Biomedikuntza Molekularreko laborategietan egoten direnen modukoa da, eta gainera, lankidetzak zientifikoak ezarri ditu honako hauekin:

- CICbioGUNE
- Enpresa bioteknologikoak (adibidez, Progenika)
- CEIT
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Clinic Barcelona ospitalea, Gregorio Marañon ospitalea, Principe de Asturias ospitalea (Alcala de Henares)

Ikerketak garatzeko, OWL Genomics enpresak bere plataforma teknologikoa dauka, eta horren barruan Genomikako, Proteomikako eta Metabolomikako berrikuntza teknikorik handienak sartzen dira; horrela, ikerketek eraginkortasun maila oso handia dute.

Sortzeko urtea.
2002

Oraingo langileria.
2

Fakturazioa.